



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 11

64. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua sortzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituena (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azkartu ditzan Arradako kontzejuan ur edan-garriaren sarea eta hoditeria berritzeko lanak. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio-ko Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriki dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia. Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Arriskuei buruzko Legea bere profesional guztiei aplikatu diezaien. Osasun Batzordeak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean bete dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen xedapenetan ezarritakoa. Akats zuzenketa (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Renferen arrazionalizazio plana erretira dezan. Sustapen Batzordeak bazter utzia (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, 17/2012 Foru Legean ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeetako irakaskuntza ez ituntzearen gainean ezarritakoa Nafarroako Gobernuak ez betetzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andrearen galdetara (13. or.).

—Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuaren asmoa ote den Administrazio eta Kudeaketako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ez eskaintzea Lekarotzeko BHIIn eta zeintzuk izan diren erabaki hori hartzeko arrazoiak, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (14. or.).

—Galdera, jakitekoa zeintzuk izan diren Nafarroako Gobernuaren jarduketak, Nafarroako abiadura handiko korridorearen obrak ziurtatzeko, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (14. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (15. or.).

—Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Lan-taldea eratzea (16. or.).

—Lan-taldea, aztertzekoa zein den Nafarroako trenbide sarearen eta tren zerbitzuaren egungo egoera, bai eta trenbide-errealitatea eta hark ematen duen zerbitzua optimizatzeko formulak eta neurri serioak ere. Sustapen Batzordeak bazter utzia (16. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua sortzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua sortzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua sortzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua sortzen duena**

### ZIOEN AZALPENA

Zuzenbideko Estatuaren eraketagatik eta haren iturria den legezketasunaren printzipioagatik, Administrazio publikoa erabat lotu behar zaio legeari, azken hori herriaren borondatea den heinean. Baina Administrazioa zuzenbideari lotzearen konpentsazio bat izan da "administrazioaren adierazpen- eta exekuzio-autobabesaren pribilegio" izenekoa, eta, halaber, herritarrek administrazio-egintzen aurka aurkezten dituzten erreklamazio edo errekurtsioetan lehenbizi Administrazioak ebaztea. Administrazio jarduketaren legezketasun

printzipioa aspalditik esparru honetan garatu da, eta haren barnean administrazio-zuzenbideak uko egin dio, oro har, arbitrajea edo transakzioa egin ahal izateari, administrazio-egintzak edo prestazio jarduerak burutzen direnean jarduera juridiko eta material horrek ukitzen dituen herritarrekin sortzen diren auzietan. Bereziki, administrazio-zuzenbideak bere zutabe gisa ezarri du administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren alde erreserbatzea Administrazioaren jardueraren legezketasunaren kontrola. Aipatu araua 1978ko Konstituzioan jasotzen da, 106. artikulua xedatzen baitu auzitegiek kontrolatzen dituztela erregelamenduak egiteko ahala eta administrazio jardunaren legezketasuna, bai eta jardun hori zein helburuk justifikatu, helburu horiekiko mendekotasuna ere.

Hala eta guztiz ere, berriki, dela Europar Bata-suneko zuzenbidearen eraginagatik, arbitrajea epaitegiz kanpoko tresnatzat jotzen baitu gatazkak konpontzeko, dela administrazioarekiko auzien jurisdikzioarekin erabakietan gertatzen diren atzerapenen aurrean erreakzionatze aldera, atzerapenek ukitutako herritarrei babes judizial efektiboaren oinarritzeko eskubidea ahultzen zaiela kontuan hartuz, doktrina zientifikoak defendatzen du legeak aukera izatea Administrazio publikoa ere arbitrajeari lotzeko, alegia, epaitegiz kanpoko organo baten erabakiari lotzeko herritarrekin sortzen diren auziak, administrazio eginkizunak -agintaritzakoak zein materialak edo prestaziokoak- betetzearen ondoriozkoak. Bide hau legez onartu da, hein batean, administrazioaren jardueraren zenbait arlotan, esate baterako, funtzio publikoan, kontratazio publikoan, estatuko Administrazioaren barneko antolaketa harremanetan, aukera berdintasunean, diskriminazio ezean eta informazio publikorako eta hartara sarbidea izateko eskubidean.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak administrazio-arbitrajea ezartzeko urrats garrantzitsua egin zuen Administrazio publikoen eta herritarren arteko auziak ebazteko, administrazio-zuzenbidearen araubide-

ko harremanak izaten dituztenean. Izan ere, aipatu legeak, 107.2 artikuluan xedatzen du legeek, kasu eta arlo jakinetan, eta gaiaren berezitasunak hala eskatzen duenean, administrazio errekurtsuaren orde, beste inpugnazio edo erreklamazio prozedura batzuk ezar ditzaketela egintzen aurka egiteko, besteak beste arbitrajea, hierarkiako jarraibideen mendean ez dauden kide anitzeko organoetara edo berariazko batzordeen aurrean. Nolanahi ere, edozein bide erabiltzen dela ere, bete egin behar dira azaroaren 30/1992 Legeak herritarrei eta administrazio-prozeduretako interesdunei aitortzen dizkien printzipio, berme eta epeak. Beraz, arbitrajea onartzen du. Bide hori herritarrek libreki aukeratzekoa izango litzateke, administrazioarekiko errekurtsuaren ordekoa, baina ez luke baztertu-ko geroago kontrola izatea administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aldetik. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 60. artikulua jaso du, zeinak aukera ematen baitu gora jotzeko eta berraztertzeko errekurtsuak foru lege bidez ordeztzeko, bestelako arbitraje prozedurekin, hierarkiako jarraibideen mendean ez dauden kide anitzeko organoetara edo berariazko batzordeetara joz, kasu eta arlo jakinetan, eta gaiaren berezitasunak hala eskatzen duenean; administrazio-errekurtsuaren ordeztzeko prozeduren ebazpenak bidea libre uzten du administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko.

Zuzenbideko administrazio-arbitrajearen eginkizunak dituen kide anitzeko organo baten funtzionamenduak, Estatuko legearen 107. artikuluen eta foru legearen 60. artikuluen babesean, herritarri oso alderdi eskergarriak eskaintzen dizkio, alegia, administrazioarekin duen auzia ebazteko arintasuna eta doakotasuna. Arbitrajearen erabakia aldekoa duenean, bereziki, herritarrak gainera-ko abantaila bat dauka, arbitrajearen erabakia inpugnatzeko administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzearen zama Administrazio publikoak jasan behar duelako, eta ez herritarrak. Abantaila horri dagokionez, aipatzekoa da Tasa Judizialei buruzko azaroaren 20ko 10/2012 Legea. Izan ere, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko eskubidea erabili nahi dutenei tasak ordaintzeko beharra ezartzen die. Zama hori, batzuetan, larriegia izan daiteke tasak ordaindu behar dituen hiritarrarentzat, eta disuasio efektua sortzen du. Horregatik guztiatik, justifikatua dago auzia ebazteko ordeztzeko sistema bat egotea, herritarrarentzat doakoa dena, jurisdikzionalaren antzeko bermeak dituen eta era berean bide jurisdikzionalan berraztertu ahal dena.

Zuzenbideko administrazio-arbitrajearen eginkizunak dituen kide anitzeko organo bat sortzeko,

ezinbestez, lege bat egin behar da. Lege hori Nafarroako Foru Komunitatekoa izan daiteke, administrazio prozedura erkidearen oinarriak eta bermeak ukitu ez, eta Nafarroako Foru Komunitatearen antolaketatik datozen berezitasun materialetara eta prozesaletara mugatzen den heinean.

Beste alde batetik, arbitrajea-eginkizunak dituzten organo hauek azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikulua ezartzen duen esparruaren arabera izateko eta abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 60. artikulua erekin bateragarri izateko, gutxienez ere ondoko ezaugarri hauek bildu behar dituzte: a) kide anitzeko organoa independentea, objektiboa, inpartziala eta profesionala izatea, b) kontu handiz zedarritu eta zehaztu behar dira zuzenbideko arbitrajearen mendean jarri ahal diren prestazio jarduerak eta administrazio egintzak, arlo jakin batzuei dagokienez; c) zuzenbideko arbitrajea prozedura erraza, doakoa eta azkarra izatea; d) Konstituzioaren 106.1 artikulua aginduta, betiere aukera egotea arbitrajearen erabakia administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren bidez berraztertzeko, bai arbitrajearen erabakia hartzeko moduari, bai eta erabakiaren edukiari berari dagokienez.

Foru Legeak, aurreko lerroaldean aipatzen diren premisak eta baldintzak estu betez, Nafarroako Administrazio-arbitrajearen Zerbitzua sortu du. Ez du beste administrazio-egitura bat sortu nahi, arbitrajearen eginkizunak behar bezala betetzeko berri-berritik atxiki beharreko materialek eta giza baliabideek gastu ekonomiko handiagoa ekarriko luketelako. Horiek horrela, dagoeneko diren egiturak baliatuta, Nafarroako Administrazio-arbitrajeko Zerbitzua organikoki Nafarroako Arartekoaren erakundeari atxiki zaio. Erakunde horrek eskuratuko dizkio egoki funtzionatzeko behar dituen materialak eta giza baliabideak, baina aldaketarik sortu gabe Arartekoaren gomendio eginkizunetan eta agintaritzan izaeran. Era honetan helburu hirukoitza betetzen da: arbitraje organo hau sortzearekin gastu handiagorik ez izatea, bere independentzia eta objektibotasuna erabat bermatzea, administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dituzten eskubideak defendatzen dituen parlamentu-erakunde bati atxikitzen zaiolako, eta bidea ematea eskatutako baldintzak biltzen ez dituzten arbitraje-eskaerak Nafarroako Arartekoak tramitatu ahal izateko, herritarren kexa gisa.

## **1. artikulua.** Sorrera

1. Nafarroako Administrazio-arbitrajeko Zerbitzua sortzen da. Kide anitzeko organoa da eta administrazio-arbitrajeko eginkizunak ditu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Admi-

nistrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan ezarritakoak.

2. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuak botere publikoekiko eduki behar dituen independentzia, objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko, organikoki Nafarroako Arartekoaren erakundeari atxiki zaio. Aipatu erakundeak, bere aurrekontuaren kargura, funtzionamendu eraginkorrerako behar dituen baliabideak eskuratuko dizkio.

3. Foru lege honek Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuari ematen dizkion eginkizunek ez dituzte ezertan ukituko Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Arartekoari ematen dizkion eginkizunak eta izaera. Zerbitzuaren eginkizunak ez dira Arartekoaren eginkizunen mendean egonen.

**2. artikulua.** Administrazio-arbitrajearen mendeko egintzak.

1. Administrazio arloko legeriaren arabera, interes edo eskubide zilegi bat duten pertsona fisiko edo juridikoek, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren arbitrajea eskatu ahalko dute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen administrazio-egintza indibidual hauei dagokienez.

a) Zehapenak, gehienez ere 10.000 euroko isuna dutenak.

b) Eskubideez gabetzeko edo jarduera uzteko ebazpenak, gehienez ere hamar hilabetetarako.

c) Ondare-erantzukizuna dela-eta egindako erreklamazioak ustez edo espresuki ukatzea, 10.000 eurotik gorakoak ez badira.

d) Dirulaguntzak edo bestelako laguntza publikoak ustez edo espresuki ukatzea, 10.000 eurotik gorakoak ez badira.

e) Ustez edo espresuki ukatzea lege- edo administrazio-xedapenetan espresuki aurreikusitako hezkuntza, osasun edo gizarte arloko prestazioak,

f) Ustez edo espresuki ukatzea administrazio baimen, lizentzia edo egiaztagiria, legeetan edo erregelamenduetan espresuki aurreikusi badira.

g) Ustez edo espresuki ukatzea informazio publikoa, ingurumen edo hirigintza arloko informazioa, erregistroak, artxiboak eta agiri publikoak edo gainerako edozein informazio publiko eskuratzeko eskubidea, legeek hala aitortzen dutenean.

h) Ustez edo espresuki ukatzea herritarrek parte hartu eta laguntzeko eskubideak, edo Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekaina-

ren 21eko 11/2012 Foru Legean agertzen diren gainerako eskubideetako edozein.

i) Foru lege batek edo foru dekretu batek xedatzen duen gainerako edozein.

2. Artikulu honetan aurreikusitako arbitrajea erabiltzea bateraezina da interesdunak gora jotzeko edo berraztertzeko errekurtsoa erabiltzearekin, arbitrajearen mendean jartzen den administrazio egintza beraren aurka.

### **3. artikulua.** Eskaera.

1. Arbitrajerako eskaera Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuan aurkeztuko da, hilabeteke epean, interesdunak arbitrajearen xede izanen den administrazio-egintzaren jakinarazpen pertsonala jasotzen duenetik, egintza espresua denean. Halaber, zilegi izanen da aurkeztea inolako egintzarik jakinarazi ez den bitartean, ustezko egintza denean, betiere ebazteko eta jakinarazteko ezarrita dauden epeak iragan badira.

2. Eskaerarekin batera behar diren agiria aurkeztuko dira, administrazio-egintza, ustezkoa edo espresua, badagoela egiaztatzen dutenak, eta, eskatzaileak egokitzen jotzen badu, administrazio-egintza antolamendu juridikoaren aurkakoa dela oinarritzeko erabiltzen dituen argudioak.

3. Eskaera aurkeztea eta arbitrajearekin lotutako gainerako jarduketa guztiak doakoak izanen dira.

### **4. artikulua.** Izapidetzea

1. Arbitrajerako eskaera jasota, administrazio-egintza, ustezkoa edo espresua, egiaztatzen duten agiriekin batera, eta behin ziurtatuta interes zilegia, egintza, eskumena eta esku hartzeko gainerako baldintzak badirela, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuak arbitrajerako prozedura irekitzeko erabakia hartuko du, eta egintzaren egile den Administrazio publikoko organoari eskatuko dio, kasu horretan dagokion mahaikide lehendakariak sinatutako ofizio baten bidez, administrazio-espeditentea igortzeko. Arbitraje-prozedura irekitzeko erabakia, halaber, interesdunari jakinaraziko zaio.

2. Administrazioak hogeit hamar eguneko epe luzean igorri beharko du espeditente osoa. Espeditentearekin batera, eta epe berean, organo eskudunak egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztuko ditu. Hori egiten ez badu ere, Administrazioari entzutea emateko izapidea bete dela ulertuko da.

3. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuak ebazten badu ez dela bidezko arbitrajerako prozedura irekitzea, foru lege honek ezartzen ditu-

en baldintzak betetzen ez direlako, interesdunari jakinaraziko dio, lehendakariaren bidez, eta erabaki horren zioak azalduko ditu.

Era berean, Zerbitzuak Nafarroako Arartekoari bidaliko dio eskaera, gainerako agiriekin batera, Arartekoak, bidezkoa bada, kexa gisa izapidetzeko, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

4. Administrazio espedientea jasota, eta aurreko zenbakietan aipatzen diren gainerako baldintzak beteta, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua bilduko da, behar den ebazpena emateko.

#### **5. artikulua.** Arbitrajearen ebazpena

1. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuak zuzenbidean oinarritutako ebazpena eman du, eta deklaratu du aurkeztu dioten egintza ordenamendu juridikoarekin bat datorrela edo ez datorrela.

Era berean, ebazpen horretan xedatu du egintza bertan behera uztea edo aldatzea, edo dagokion egoera juridikoa onartzea, edo prestazioa ematea, edo dagokion kalteordaina ordaintzea, kasuaren arabera.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ezertan ukatu gabe, ebazpenak arbitrajerako eskaera ez onartzeko deklarazioa egiten du, horretarako arrazoiak direnean.

3. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren ebazpena interesdunari eta eskumena duen administrazio publikoari jakinaraziko zaie. Parteak lotuko ditu auziaren funtsari dagokionez, eta bakar-bakarrik haien artean eta ebatzi den kasu zehatzerako sortuko ditu ondorioak, baina ebazpenetik ez da ondorio orokorrik aterako.

4. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren ebazpenaren exekuzioa errekurritutako egintzaren edo erabakiaren egile den administrazioaren organoari dagokio. Bi hilabeteko epea izanen du ebazpenak xedatzen duena betetzeko, hura jasotzen duenetik, salbu eta Administrazioak errekurtsioa aurkezten badu. Horretarako, Nafarroako Gobernuak behar den guztia xedatu ahalko du, aipatu ebazpena exekuta dadin bermatzeko.

5. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren ebazpena administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eskudunetan inpugnatu ahalko da, hala hura sortzeko moduari nola auziaren funtsari dagokienez.

6. Ebazpena ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izanen da. Epe hori iragan eta gero, eskaera ezetsizat joko da.

7. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren ebazpenak argitara emanen dira, barruan dituzten datu pertsonalak kendu ondoren, bitarteko elektronikoen bidez, interesdunari jakinarazi eta gero.

#### **6. artikulua.** Antolaketa.

1. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzua hiru kidek osatuko dute. Kasu bakoitzean haietako bat zerbitziburua arituko da, eta beste bat idazkari.

2. Kideek Nafarroako Arartekoaren aholkulari teknikoak izan beharko dute, eta halaber funtzionario publikoak izan, edo lehenagotik funtzionario publikoak izanak, funtzio publikoan sartzeko Zuzenbideko gradua edo horren baliokidea behar izan zutenak.

3. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuko hiru kideak Nafarroako Arartekoak izendatuko ditu, aurreko zenbakian aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten aholkulari teknikoaren artean. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren erabakiak hiru kideen artean hartuko dira, gehiengoz. Edozein kasutan ere, kideek askatasun osoa izanen dute irizpide juridikoaren arloan erabakiak hartzeko. Objektibotasunez, inpartzialtasunez eta independentziaz jokatu dute, eta arbitraje eginkizunean ez dira hierarkiako edo bestelako jarraibideen mendean egonen, edo gainerako edozein agintaritzaren mendean, ez eta Nafarroako Arartekoarenean ere.

5. Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren ebazpena lehendakariak sinatuko du eta idazkariak jakinaraziko du. Gehiengoaren iritzierik bat ez datorren kideak ezadostasuna edo arrazoiak azaltzeko botoa gehitu ahalko du.

#### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Arartekoak lankidetzaz hitzarmenak edo laguntza-kontratuak egin ahalko ditu abokatu elkargoekin, erakunde publikoekin edo abokatu eta prokuradoreekin, Nafarroako Administrazio-arbitrajerako Zerbitzuaren administrazio-ebazpenen defentsa judizialerako.

**Azken xedapenetan lehena.** Indarrak gabe gelditu dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulu- lua aldatzen dituen.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2013ko apirilaren 22an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak agindu zuen argitara zedin Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Lege proposamena, zeina pasa den maiatzaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, eta erabaki zuen aipatu proposamena irakurketa bakarrek prozeduraz izapidetzea.

Ohartuta proposameneko 8. eta 9. artikuluek xedatzen dutela Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. Tituluko VIII. Kapituluaren aldaketa, eta lege hori onesteko gehiengo osoa behar dela, bere 58. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 259. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kontuan hartuta Unión del Pueblo Navarro eta Alderdi Popularraren parlamentu-taldeetako bozeramaileek irakurketa bakarrek prozeduraz izapidetzearen aurka azaldu zirela, eta, ondorioz, Erregelamenduko 153. artikuluaekin bat, izapidetze hori bidegabekoa zela, behintzat Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko aipatu 8. eta 9. artikuluei dagokienez.

Kontuan izanik, jada azaldu den bezala, proposamenaren 8. eta 9. artikulua onesteko gehiengo osoa behar dela, eta kontuan izanik, halaber, Erregelamenduko 152.3 artikuluan ezarritakoa, arestian aipaturiko proposamenekin bat, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen aldaketari dagokiona, eta hori prozedura arruntari jarraituz izapidetuko da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. Tituluko VIII. Kapitulu-

aldatzen dituen Foru Lege proposamenaren gisaz. Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Lege proposameneko gainontzeko edukia irakurketa bakarrek prozeduraz izapidetuko da, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak erabaki bezala.

Horregatik guztiagatik, Gobernuak bere iritzia eman ondoren, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.3 eta 153.1 artikuluekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. Tituluko VIII. Kapituluaren aldatzen dituen Foru Lege proposamena, zeina Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko Foru Lege proposamenekin banakatu baita. (8-13/PRO-00026).

**2.** Xedatzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. Tituluko VIII. Kapituluaren aldatzen dituen Foru Lege proposamena argitaratu ondoren, Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzen ahalko dela, horrek aintzat har dezan.

**3.** Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko hasierako Foru Lege proposamenekin, maiatzaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik, 8. eta 9. artikulua kentzea.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,  
Nafarroako Toki Ogasunei buruzko  
martxoaren 10eko 2/1995 Foru Lege-  
ko 132. artikulua eta II. tituluko VIII.  
kapitulua aldatzen dituena**

ZIOEN AZALPENA

Honen bidez, aldatu egiten da etxebizitza hutsen gaineko zerga, lehen etxebizitza desokupatu-en gaineko zerga deitua; izan ere, Nafarroan Etxebizitzarako Eskubidea Ziurtatzeko Neurri Urgenteei buruzko Foru Legeari zehaztu egin behar zaio dagokion marko fiskala, eta, hala, ezarri beharra dago Nafarroako udalek nahitaezkoa izanzen dutela zerga hau ordainaraztea.

Zerga hori ezartzeko, aldatu beharra dago Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua, eta lege horrek, bere 58. artikulua arabera, gehiengo osoa exijitzen du onesteko, eta hori da foru lege honen bidez egiten dena.

**1. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari 132. artikulua aldatzen da. Honako testua izan den du:

«132. artikulua.

1. Foru lege honen eta hura garatzen duten xedapenen arabera, udal guztiek honako zerga hauek ordainarazteko:

- a) Lurralde kontribuzioa.
- b) Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga edo lizentzia fiskala.
- c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga edo zirkulaziokoa.
- d) Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga.
- e) Hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga edo plusbaliokoa.
- f) Etxebizitza hutsen gaineko zerga.

2. Orobat, foru lege honen, bera garatzen duten xedapenen eta zerga ordenantzen arabera, udalek luxuzko gastuen gaineko zerga ezarri eta ordainarazi ahalko dute».

**2. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen da. Honelaxe geldituko da:

«VIII. KAPITULUA

Etxebizitza hutsen gaineko zerga

184. artikulua. Zergapeko egintza.

Etxebizitza hutsen gaineko zergak zergapetuko du Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari araututako Etxebizitza Hutsen Erregistroan agertzen diren udalerriko etxebizitzaren titulartasuna.

185. artikulua. Subjektu pasiboak.

Zergaren subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, jaraunspen banatugabeak, ondasun erkidegoak, eta gainerako entitateak, nortasun juridikorik izan ez arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen dutenak, baldin eta:

a) Etxebizitza hutsen gaineko jabetza-eskubi-dearen titular badira, etxebizitza horien gainean bestelako gozamen-eskubide errealik ez denean.

b) Etxebizitza hutsen gaineko gozamen-eskubide erreal baten titular baldin badira, eskubide hori jabeari ez dagokionean.

186. artikulua. Salbuespenak.

1. Honakoak daude zerga honetatik salbuetsiak:

a) Etxebizitza zein herritan dagoen, beren zereginak handik kanpo bete behar dituzten funtzionario publikoen titulartasunpeko etxebizitzak; hori guztia, aplikatzen zaien legeriarekin bat.

b) Honako hauen titulartasunpeko etxebizitzak: ohiko bizilekua zein herritan daukaten, handik kanpo aldi baterako joan behar izan duten langileak, arrazoi tekniko, antolamenduko zein ekoizpenekoak direla eta, edo bestela enpresa-jarduketari buruzko kontratazioengatik alde egin behar izan dutenak, edo toki-mugikortasuna aplikatzen zaiznak.

2. Nolanahi ere, salbuespenak etxebizitza bakarra hartuko du.

187. artikulua. Zerga-oinarria.

Zerga-oinarria lurraldeko kontribuzioaren ordainarazpenerako indarrean dagoena izan den da.

188. artikulua. Kuota.

1. Zerga honen kuota zerga oinarriari karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

2. Karga-tasa % 0,10etik % 0,50era bitartekoa izan den da. Karga-tasa bera izan den da udalerrirako osoan.

189. artikulua. Sortzapena.

1. Zerga lehen aldiz sortuko da etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko duen kasuko ebazpena ematen denean.



2. Gero, zerga urte bakoitzeko lehen egunean sortuko da, etxebizitza Etxebizitza Hutsen Erregistroan alta emanda dagoen bitartean.

3. Kuotak sehilekoak izanen dira, sehileko naturalekoak, eta horien barruan, zatiezinak eta gutxitzen ezinak izanen dira.

4. Subjektu pasiboek zera eskatu ahal izanen dute, dagokion espedientea izapidetuz: etxebizitza bete denetik aurrerako aldiari dagokion heineko kuota-zatia itzultzea.

190. artikulua. Etxebizitza hutsen zentsua.

1. Etxebizitza hutsen zentsua mantendu behar-ko dute udalek, zergaren ordainarazpenerako.

2. Aurreko idatz-zatian xedatuaren ondorioetarako, departamentu eskudunak ofizioz jakinaraziko dizkio udal bakoitzari Etxebizitza Hutsen Erregistroan gertatzen diren altak eta bajak, kasuko udal-erriari dagozkionak.

3. Erregistroan alta emanda, udalak titularrari jakinaraziko dio alta hori, zerga-oinarria eta zerga-tasa indarduna adierazita.

191. artikulua. Zergaren kudeaketa.

Zerga lurralde kontribuziorako erabiltzen diren arau berekin kudeatuko da, eta kasuko likidazioak eta kobrantza-dokumentuen igorpenak batera eginen dira».

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau-indargabetzea.

Foru lege honen aurka doazen lege-nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azkartu ditzan Arradako kontzejuan ur edangarriaren sarea eta hoditeria berritzeko lanak.**

*LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak, 2013ko ekainaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azkartu ditzan Arradako kontzejuan ur edangarriaren sarea eta hoditeria berritzeko lanak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren izapideak azkartu ditzan, Arradako kontzejuan ur edangarriaren sarea berritzeko eta beharrezkoak diren hodiak sartzeko lanak berehala has daitezen".

Iruñean, 2013ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia.**

*KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko ekainaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Berrikus dezan Nafarroako Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legearen edukia.

2. Ebaluazio hori Parlamentuari igor diezaion hiru hilabeteko epean, gai horri buruzko saio monografiko bat egite aldera".

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Arriskuei buruzko Legea bere profesional guztiei aplikatu diezaiei.**

### **OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko ekainaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lan Arriskuei buruzko Legea bere profesional guztiei aplikatu diezaiei." Horren jatorria da Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2013ko ekainaren 3ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu du. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta, ondorioz, Osasun Departamentua eta Osasunbidea-NOZ, premiatzen ditu Lan Arriskuei buruzko Legea aplikatu diezaieten beren profesional guztiei lan arriskuen prebentzioaren eta horien aurrean babesa izatearen arloan, eta beharrezkoak diren Norbanakoaren Babeserako Ekipoez horni ditzaten, kasuan kasuko lana segurtasun baldintza hobereetan egite aldera."

Iruñean, 2013ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean bete dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen xedapenetan ezarritakoa.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Akats bat aurkitu da erabaki honen tituluan: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean bete dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen xedapenetan ezarritakoa." Erabakia Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsi zuen 2013ko maiatzaren 24an, eta 2013ko maiatzaren 31ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, testu zuzena osorik argitaratzen da, akatsa zuzentze aldera. Hona:

"1. Nafarroako Gobernua eta bere departamentu guztiak premiatzea osorik bete dezaten Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea, legeak ezarritako autoebaluazio prozesuak azkartuz.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea hiru hilabeteko epean jarduketa plan bat aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan, beharrezkoak diren neurriak, egutegia eta diru-zenbatekoak ezarrita, irisgarritasun unibertsalerako eskubidearen eta herritar oroentzako diseinuaren arloan egun dauken gabeziak ahal den azkarren zuzentze aldera.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea hiru hilabeteko epean taxutu dezan apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea garatzeko beharrezkoa den erregelamendua."

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Renferen arrazionalizazio plana erretira dezan.**

### *SUSTAPEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Socialistas de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Renferen arrazionalizazio plana erretira dezan"

Legebiltzarreko Sustapen Batzordeak, 2013ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen

aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, 17/2012 Foru Legean ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeetako irakaskuntza ez ituntzearen gainean ezarritakoa Nafarroako Gobernuak ez betetzeari buruzkoa.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 17/2012 Foru Legean ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeetako irakaskuntza ez ituntzearen gainean ezarritakoa Nafarroako Gobernuak ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den ekainaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 19ko 17/2012 Foru Legean ezartzen denez, ezin izanen dira itundu sexu bakarreko ikasleak bakarrik onartzen dituzten ikastetxeak edota sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenak.

Lege horretan aplikazio-egutegi bat zehazten da, hezkuntza etapa jada hasia duten ikasleei eragiten ez diena, halako moduz non 2013-2014 ikasturtean aplikatzen hasiko baita hezkuntza etapa desberdinetako lehen kurtsoan eta kurtsoz kurtso zabaltzen joanen baita ituntzea guztiz desagerrarazi arte.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, Izquierda-Ezquerria parlamentu-taldeak gai horri buruz eginiko informazio eskaera bati emandako erantzunean, adierazi du mantendu egingen direla lege hori argitaratu aurreko zenbait foru agindu eta ebazpenetan ezarritako itunak, eta, horrenbestez, itunak mantenduko direla 2013-2014 ikasturtearen amaiera bitartean Haur Hezkuntza eta Batxilergorako eta 2014-2015 ikasturtea amaitu bitartean Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Maila Ertaineko eta Goi Mailako Lanbide Heziketarako.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez da betetzen ari urriaren 19ko 17/2012 Foru Legean ezarritakoa, ikasleak sexuaren arabera banatzen dituzten ikastetxeetako ikasketak ez ituntzeari buruzkoa?

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuaren asmoa ote den Administrazio eta Kudeaketako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ez eskaintzea Lekarotzeko BHIIn eta zeintzuk izan diren erabaki hori hartzeko arrazoiak.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuaren asmoa ote den Administrazio eta Kudeaketako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ez eskaintzea Lekarotzeko BHIIn eta zeintzuk izan diren erabaki hori hartzeko arrazoiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak ekainaren 13ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Egia al da Hezkuntza Departamentuaren asmoa dela Administrazio eta Kudeaketako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa ez eskaintzea Lekarotzeko BHIIn? Hala bada, zeintzuk izan dira erabaki hori hartzeko arrazoiak? Uste al duzu neurri hori koherentea dela eskola-uzte tasa murrizteko helburuarekin?

Iruñean, 2013ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, jakitekoa zeintzuk izan diren Nafarroako Gobernuaren jarduketak, Nafarroako abiadura handiko korridorearen obrak ziurtatzeko.**

*ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zeintzuk izan diren Nafarroako Gobernuaren jarduketak, Nafarroako abiadura handiko korridorearen obrak ziurtatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den ekainaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

- Zertan dira Nafarroako Gobernuaren jarduketak, abiadura handiko Nafarroako korridorearen obrak ziurtatzekoak?

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.**

*GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin lan-talde bat sortzeko erabakia, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera. Erabakia Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak onetsi zuen, 2013ko maiatzaren 31n egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Gizarte Politiketako Batzordean lan-talde bat eratzen da, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.

2. Adieraztea parlamentu-taldeek eledunek lan-talderako hautaturiko kideen berri izan duela:

Francisco Javier Lorente Pérez jauna (UPN)

M<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zorzano andrea (SN)

Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu-N)

Xabier Lasa Gorraiz jauna (Aralar-NaBai)

Amaya Zarranz Errea andrea (PPN)

Txema Mauleón Echeverría jauna (I-E)

Patxi Leuza García jauna (Atxiki gabekoa)

3. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, aipatu lan-taldearen osakerari eta eratzeari buruz behar dena xeda dezan.”

Iruñean, 2013ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Lan-taldea, aztertzekoa zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera.**

### *LAN-TALDEA ERATZEA*

Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko maiatzaren 31n, Erregelamenduko 55.2 artikuluan xedatuarekin bat, erabaki zuen lan-talde bat eratzeari aztertzeko zein den gizarteratze errentaren garapena eta egoera, bai eta parlamentu-taldeek ekimen eta proposamen ezberdinak ere, gizarteratze errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea indartu edo aldatze aldera, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu lan-taldearen osakerari eta eraketari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean hasi ahal izan dadin, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Ezartzea lan-talde hori 2013ko ekainaren 18an eratuko dela.

**2.** Txostena egiteko epea bukatuko da lan-taldea eratu eta hiru hilabetera.

Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

**3.** Erabaki hau parlamentu-taldeetako eledunei eta Patxi Leuza García jaunari jakinaraztea.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Lan-taldea, aztertzekoa zein den Nafarroako trenbide sarearen eta tren zerbitzuaren egungo egoera, bai eta trenbide-errealitatea eta hark ematen duen zerbitzua optimizatzeko formulak eta neurri serioak ere.**

### *SUSTAPEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuko Sustapen Batzordeak, 2013ko ekainaren 5ean egindako bileran baztertu zuen Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztutako proposamena, lan-talde bat sortzekoa, zeinak aztertuko bailuke zein den Nafarroako trenbide sarearen eta tren zerbitzuaren egungo egoera,

bai eta trenbide-errealitatea eta hark ematen duen zerbitzua optimizatzeko formulak eta neurri serioak ere.

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera